

JONEREN AMETSA

3. bertsioa

Ikusleak neskato baten logela erraldoian sartzen dira. Erdian, lainoturiko itxaso baten erdian flotatzen bezela, ohe haundi bat. Neskato bat lotan dago. Ile-kiribilak eta maindireei tinko eusten dieten eskutxoak baino ez dizkiogu ikusten. Maindireen azpian neskatoaren gorputza somatzen dugu, arnasa hartukeran puztu eta hustu egiten dena.

Eskena hastean ekaitz izugarri batek bere indarraren erakustaldia egiten ari da gela barruan: haizea, trumoiak eta tximistak. Ohearen txokoren batetik Kapitaina agertzen da.

KAPITAINA

;;Denok bizkarrera!! ;;Denok bizkarrera!!

Ohearen txoko desberdinetatik marinelak irteten dira.

KAPITAINA

;;Teinkatu maindireak!! ;;Laxatu izarak!! ;;Bigundu burukoa!! ;;Lisatu izare-ertza!!

Marinelak neskatoa ondo tapatzen dute.

MARINELA 1

Arnas estuka dago!

MARINELA 2

Hara zelako indarrez eusten dion izarari!!

MARINELA 3

Aspaldi da halako amets iluna ikusten ez nuela!!

MARINELA 4

Ameskaizto izugarria da, Kapitaina!!

Neskatoaren lantua entzuten da. Horren ostean, bere Beldurraren barrea.

MARINELA 5

Entzun duzue barre izugarri hori?

MARINELA 3

Beldurraren barrea da, ametsaren jabe egin dena!

MARINELA 1

Odola izozten du barre algara horrek.

MARINELA 2

Neskato gaxoa!

MARINELAK

Neskato gaxoa!!

KAPITAINA

Aski da arranguraz! Denok zeuen postuetara!!

MARINELA 1

Baina Kapitaina, Beldurra gelaren inguruan dabil!! Ikaratuta gaude.

KAPITAINA

Joneren ametsaren zaindaria gara, eta bera babestea da gure lana.

BESTE LAU MARINELAK

Bai, Kapitaina!!

MARINELA 1

Baina...

BESTE LAU MARINELAK

Entzun diozu kapitainari!

MARINELA 1

(Konbenzimendurik gabe) Bai, kapitaina!

KAPITAINA

Denok zeuen postuetara!!

MARINELAK

Bai, kapitaina!!

Marinelak ohearen puntu guztietara sakabanatzen dira: Kapiteina brankan geratzen da, buruaren ondoan; 1 ohearen popian; 2 ohe buruaren apalaren gainera, hortzemuga ikusteko; 3 ababorrean eta 4 estriborrean.

MARINELA 1

Berririk ez popian!!

MARINELA 2

Dena ondo oheburuan!!

MARINELA 3

Ezer larririk ez ababorrean!!

MARINELA 4

Ezta estriborrean ere!!

MARINELA 5

Kalterik ez masterian!!

Neskatoaren abotsa entzuten da: “¡Aitiiiiiteeeeeee!”

KAPITAINA

Entzun haren lantua!! Itxura guztien arabera, neskatoa bere aitite gogoan zuela geratu da lotan.

MARINELA 2

Neskaren aititea duela gutxi hil zen.

MARINELAK

¡¡Ahhh!!

KAPITAINA

Benoa, badakigu arazoa zein den. Marinelak, errutinazko maniobra: flauta jo ezazue, bere aititek egin ohi zuen moduan. Horrela Jonek lasai egingo du lo eta eta ameskaiztoa desagertuko da beldurrarekin batera. Ekarri flauta hori!!

DENAK

Bai, kapitaina!

Marinelak flautaren bila hasten dira.

KAPITAINA

Zer gertatzen da flautarekin?

MARINELA 2

Ez dugu aurkitzen, kapitaina!

DENAK

Ez dugu aurkitzen!

KAPITAINA

Ezin liteke. Flauta hori behar dugu. Bila ezazue!!

MARINELA 3

Kapitaina!! Zerbait somatzen dut gelan.

KAPITAINA

Zer da, baina?

MARINELA 3

Ez dut ondo ikusten, jauna, badirudi... jendea, ametsean sartu den jendea.

BESTE MARINELAK

Hemendik ere.../ Eta hemendik... (ad lib.)

MARINELA 1

(Izuturik) Jendea??

Kapitainak bere kataloxa hartu eta begiratzen du.

MARINELA 2

Arriskutsuak dira, jauna?

KAPITAINA

Begiratu beharko dugu.

MARINELA 1

Baliteke ametsaren izpiritu maltzurak izatea. Ez badigute ezer egiten, ikusi ez bagenitu bezala egingo dugu.

KAPITAINA

Ez dute gaizkile itxurarik. Lagunak direlakoan nago.

MARINELA 5

Lagunak zarete... ala etsaiak?

MARINELAK

Lagunak ala etsaiak?

KAPITAINA

(Bozgorailu batez) Adi, jendea! Jone zure lagunaren ametsaren Zaindaria nauzue. Jone gaizki pasatzen ari da. Lo geratu aurretik aitite zenaz gogoratu da, eta bere tristurak erakarrita, Beldurra gelan sartu zaio, ameskaizto izugarri bat sortuaz.

Hitzok deituta bezela, Beldurraren barreak gelaren zerua urratzen du osterera ere.

KAPITAINA

Hor dago Beldurra. Jone lasaitzeko flauta jo nahi diogu, bere aititek egiten zuen legez. Baina arazoak ditugu. Ikusi duzue, ez dugu aurkitzen. Eta Beldurra geroz eta harroago dabil. Beldurrari aurre egiten lagundu behar diguzue.

Bildurra agertzen da goialdean.

JONEREN BELDURRA

Tristura da nire lagun mina. Eta baita iluntasuna ere.

Tximista batek zegoen argitasuna itzaltzen du. Iluntasun beldurgarri bat jabetzen da gelaz.

JONEREN BELDURRA

Argirik gabe utzi zaituztet, horrela ez duzue flauta sekula aurkituko. Eta orain, iluntasunaz baliaturik, burua hitz izugarritz beteko dizuet. Argirik gabe ez zarete hain ausartak, eh? Hitz beldurgarriak zeuen buruetan sartzen ari dira.

KAPITAINA

Ez egin kasurik Beldurrari!

MARINELAK

Ez egin kasurik!!

JONEREN BELDURRA (OFF)

“bakarrik” hitza... “mamua” hitza... “heriotza”...
“Beldurra”, hau da, ni neu.

KAPITAINA

Ez zaitezte kikildu. Beldurrari aurre egin eta argia itzultzeko modu bakarra dago: gauza alaietan pentsatzea.

MARINELAK

Gauza alaietan pentsatu!

KAPITAINA

Guk pentsamenduak irakurtzeko betaurrekoekin ikusiko ditugu.

Marinelak ohearen ertzetan jartzen dira, eta betaurrekoak ipinita, ikusleei begira geratzen dira.

Pantailan buzeatzeko betaurrekoak agertzen dira.

MARINELA 2

(Ikusle bati seinalaruz) Hara! Itxasmutil horrek bere “buzeatzeko betaurrekoak” gogoratu ditu.

KAPITAINA

Ederto... Eta “buzeatzeko betaurrekoek” hitz hauek ekarri dizkio gogora:

Bataurrekoetatik hitzok irteten dira pantailan. Marinelek hitzak errepikatzen diuzte.

MARINELAK ETA KAPITAINA
EGUZKIA! KARRAMARROAK! AREA! UDA!

Aretoa amini bat argitzen da.

MARINELA 3

Beste horrek Buzz Lightyear bat gogoratu du!

Pantailan “Buzz Lightyear” bat ikusten dugu, zeinetatik hitzak irteten diren.

MARINELAK ETA KAPITAINA
ABENTURA HEGAN EGIN; INDARTSUA; LAGUNA.

MARINELA 4

Hango horrek bere Mendiko botak gogoratu ditu, kapitaina!

Mendiko botak ikusten ditugu, eta handik irteten diren hitzak.

MARINELAK ETA KAPITAINA
TXANGO! KANPAMENDUKO SUA! LO ZAKUA!
IZARRAK!

Jonen Beldurrak tximista lazgarri bat jaurtitzen du.

BELDURRA

Ez duzue lortuko, ergelok!!

MARINELA 5

Ez egin kasurik! Zatoz hona, aurrez aurre ausartzen bazara, Beldurra!!

Pantailan objektuak agertzen dira, trumoiek eta tximistek eztanda egiten duten bitartean. Hasieran marinelek objektuen izenak esaten dituzte,

pantailan agertu ahala...Argia ere pixkanaka pixkanaka igozten da hasierako mailaraino.

KAPITAINA

Jarraitu gauza alaietan pentsatzen!

MARINELAK

BALOIA. SALTATZEKO SOKA. PINTZELA.
ATEZAINAREN GUANTEAK. BAINUJANTZIA.
PEDALETAKO KOTXEA. ERLOJUA. HONDARTZAKO
MASKORRAK...

Irudien abiada gero eta biziagoa da. Objektuak pantailan islatzen dira, bata bestearten atzetik, ekaitza baretzen den arte.

MARINELA 5

Argia itzuli da!!

MARINELA 4

Ameskaiztoa baretu da!!

MARINELA 5

Aupa, kapitaina!

DENAK

Aupa, kapitaina!

KAPITAINA

Egon... Marinela bat falta da! Non dago?

Izaren azpitik Marinela 1-en abotsa entzuten da.

MARINELA 1

Hemen nago, jauna.

KAPITAINA

Zertan zabilta hor azpian?

MARINELA 1

Flauta bilatzen ari naiz, jauna!

MARINERO 2

Bai zera! Kaka praketan dago.

KAPITAINA

Irten hortik, txipiroi! Sardin zar batek baino kemen gutxiago duzu ta!

Marinela 1 izaren artetik irteten da.

MARINELA 1

Ez dago ilun, jada. (*Ukabila altzatur*) Mendean hartu zaitugu, Beldurra... Zu baino indartsuagoak izan...

MARINELA 5

Kapitaina, Beldurra erasoka berriro!

Trumoi hotsa. Marinela 1 izaren azpian sartzen da berriz.

MARINELA 1

Ai amatxo maitea!!

JONEREN BELDURRA

Oraingoz irabazten ari zarela dirudi, Jone, baina zure beldurak ez du atsadenik hartzen...

Neskatoaren lantua entzuten da.

MARINELA 2

Kapitaina, flauta ez da agertzen, eta neskaren ametsa oraindik asaldatuta dago. Plan alternatibo bat behar dugu.

KAPITAINA

Plan bat? Bai... plan bat... (...) Badaukat: eguzkiaren sorrera aurreratu behar dugu. Gaua eta denboraren itxasoan zehar, belak zabalik egunsentiraino nabigatuko dugu.

MARINELA 3

Kapitaina, egunsentirako asko falta da, ordea!

KAPITAINA

Ez dago ezinezkorik, gogo biziz desiatzen badugu.

JONEREN BELDURRA

Ja, ja, ja! Ez zarete sekula egunsentira iritsiko! Ekaitz bat bidaliko dut eta gauaren iluntasunean hondoratuko zarete.

MARINELA 5

Menderatuko zaitugu, Beldurra!

DENAK

Menderatuko zaitugu, Beldurra!

Antzokiaren balkoietatik zenbait soka jausten dira, ikusleen gainean zintzlik geratzen direnak. Marinela 1 izaren azpitik irteten da.

KAPITAINA

Lagunok. Egunsentira nabigatzeko eta ekaitza atzean uzteko, bela igo behar dugu. Baina astunegia da eta guk bakarrik ezin dugu. Laguntzeko prest zaudete? (...) Ongi da. Marinelak, prestatu maniobra.

Marinelak masta prestatzen hasten dira.

KAPITAINA

Adi, itxas neskamutilak. Guri laguntzeko, “Gora” esaten dugunean, kantatu gurekin. Horrela.

Melodia bat entzuten da. Kapitaina eta marinelak “altzatzearen” kantu bat kantatzen dute, bela igotzen dutelarik.

ESNAGAILUEN KANTUA

KAPITAINA

Esnatu zaitez txuntxurunberde

MARINELAS

Hirurak dira, ea esna zaitez!!

KAPITAINA

Hartu behar duzu beldurra mende

MARINELAS

Bostak ta hamar, ea, esna zaitez!!

KAPITAINA

Ondo dakizu adorea zer den

MARINELAS

Seirak laster, ea esna zaitez !!

KAPITAINA

Ausarta zara ta errebelde

MARINELAS

Zazpirak ja, ea, esna zaitez!!

DENAK

GORA!... GORA!... GORA!... GORA!...

Bela igota dago jada.

DENAK

Aupa!!

KAPITAINA

Ondo, lagunok. Lan bikaina. Orain, nabigatzera.

Orain nabigatzen hasten dira ekaitzaren erdian, kantatzen duten bitartean.

KAPITAINA

Mila sorgin sartu zaizu barruan

MARINELAS

Tic-tac tic-tac, zazpiak ta laurden.

KAPITAINA

Ehunka mamu daude beren onduan

MARINELAS

Orratz biak behea jo al duten!

KAPITAINA

Ogroak ere dabilta atezuan

MARINELAS

Laurden gutxi, ze gutxi falta den!

KAPITAINA

Eсна zaitez! Entzun gure kantua!!

MARINELAS

Zortzirak ja, egunsentia hemen!

KAPITAINA

GORA!... GORA!... GORA!... GORA!...

Zerua esnagailuez estaltzen da, izarrak lez. Zortzirak markatzen dute orratzek.

JONEREN BELDURRA

Ederto... Ederto, laguntxoak... Bela igo duzue, nabigatu duzue. Eta? Begira... Oraindik gaua da. Esnagailuek ez dute jo.

KAPITAINA

Egia!! Zer gertatzen da? Zergatik ez du eguna argitu?

JONEREN BELDURRA

Eguna argitzeko behar dituzuen hitzak sorgindu ditudalako. Gaua ez da sekula bukatuko. "Aburu ate amendia bileraiz, karrikai ze. Mecz oz!

Trumoi batek Beldurraren hitzak azpimarratzen ditu. Haren ohiartzunarekin, pantailan esandako hitzak agertzen dira idatzirik.

ABURU ate amendia bileraiz karrikai ze.

mecz oz!

MARINELA 2

Ze hizkera deabruzkoa da hori?

MARINELA 3

Beldurra da, hitzak nahasi dituena.

MARINELA 4

Ez ditugu inoiz ulertuko!

MARINELA 1

Ez da sekula eguzkirik aterako!

KAPITAINA

Lasai! Geure beldurra da hitzak nahasten dituena. Lasaitzen bagara ulertu egingo ditugu. (*Ikusleei*) Itxas neskamutilok, Joneren lagun onak zaretela frogatu duzue. Bere beldurrari aurre egitean lehenengo froga gainditu duzue ...

MARINELAK

ADOREARENA!

KAPITAINA

Bela igotzen laguntzean, bigarrena...

MARINELAK

ELKARTASUNARENA!

KAPITAINA

Hau azken froga da. Gaindituz gero, eguzkia irten eta ameskaiztoa bukatuko da. Baina hau da frogarik gogorrena:

MARINELAK

ADIMENARENA!

KAPITAINA

Igarkizun honen esanahia aurkitzen lagundu behar diguzue.

MARINELA 3

Baina ez da ezer ulertzen!

DENAK

Ez da ezer ulertzen!

MARINELA 2

Horixe ulertzen dela... Pentsamenduak irakurtzeko betaurrekoekin gure lagun asko pentsatzen ari direna ikusi dut, eta soluzioa aurkitu dute. Beldurra hain da maltzurra ze hitzak aldrebes jarri ditu!

DENAK

¡Ah!

MARINELA 2

Ea zer gertatzen den buelta ematean. BURUA

MARINELA 5

ETA ADIMENA

MARINELA 4

ERABILIZ

MARINELA 1

IKARARIK EZ.

MARINELA 3

MECZ OZ. Hau ez dago aldrebes, ZECM ZO ez delako ezer. Ez du ezer esan nahi.

DENAK

Ez du ezer esan nahi! Ez du ezer esan nahi, ezta?

KAPITAINA

Egon! BURUA ETA ADIMENA ERABILIZ IKARARIK EZ. MECZ OZ. Ia dena daukagu. Baina zer esan nahi du MECZ OZ??

Marinelek publikoari begira.

DENEK

Zer esan nahi du? Inork ez du ulertzen.

MARINERO 1

Inork ez du ulertzen.

KAPITAINA

Saiatu zaitetzte. (*Marinelei*) Eta zuek ere, pentsatu!

MARINERO 3

Saiatzen ari gara, Jauna.

MARINERO 4

Oso zaila da.

Joneren Beldurraren barre algara bat entzuten da.

JONEREN BELDURRA

Ez da oso zaila. Ezinezkoa da!!!

KAPITAINA

Beldurrak arrazoi du, madarikatu horrek. Ezinezkoa da!

MARINERO 2

Ez, kapitaina, zuk ezin duzu adorea galdu. Zuk ez.

Joneren lantua.

MARINELA 3

Zer egin dezakegu, Kapitaina? Jone sufritzen ari da oraindik.

KAPITAINA

Ez dakit... Ez dakit... Gauza bakarra bururatzen zait: flauta bilatzen jarraitzea.

MARINELA 4

Baina Kapitaina, ez dugu aurkitzen.

KAPITAINA

(Haserre) Ba jarraitu bila, arranopola!!

MARINELA 1

(Desesperaturik) Ez dugu aurkituko. Eta ez du eguna argituko. Etengabeko ameskaizto batean biziko gara...

MARINELA 4

Kapitaina!

KAPITAINA

Zer gertatzen da?

MARINELA 3

A ze zoritxarra, ze nahigabea!

KAPITAINA

Ze arraio gertatu da?

MARINELA 4

Joneren flauta, jauna.

KAPITAINA

Agertu al da?

Izaren azpitik Marinela 2 eta 3 irteten dira, bi zatitan apurturiko flautarekin

MARINELA 2

Bai, baina apurtuta. Ekaitzarekin puxkatu da, antza.

KAPITAINA

Saiatu jotzen.

MARINELA 2

Baina...

KAPITAINA

Saiatzeko esan dut!!

Marinela 1-ek flauta apurtua jotzen saiatzen da, baina zarata molestagarri bat besterik ez da irteten.

MARINELA 5

A ze zarata latza!!

MARINELA 3

Galduak gaude!

KAPITAINA

Nik ezin dut gehiago. Amore ematen dut. Oraingoan zeuk irabazi duzu, Beldurra. ¡Madarikatu alena!

MARINELA 1

Kapitaina... Begira! Han... Flautaren bibrazioak letra bat jiratu arazi du.

Hala da, dardarak "m"-a mugitu du.

Eecz o z!

KAPITAINA

Egia! Eta jiratzean “M”-A “E” bihurtu da. E jiratzen badugu... (*jiratzen da*) G bihurtzen da. C... (*jiratzen da*) U. Z... (*jiratzen da*) N. O... O (*jiratzen da*) beti da O. Eta Z... (*jiratzen da*) N.

Pantailan garbi irakurtzen dugu: “EGUN ON”

DENAK

¡EGUN ON!

Trumoiak Beldurraren arregurazko ohiuarekin batera entzuten da.

KAPITAINA

Asmatu egin dugu!

MARINELAS

Gora!!

MARINELA 1

Mundiala naiz!! Mundiala naiz!! (*Beste marinelek begiratzen diote*) Ikusi duzue, ezta? Nork jo du flauta? Nork jiratu arazi du letra? Super-ni! Sekulakoa naiz!!

Azkeneko trumoiak, urrunekoa jada. Marinela 1 besteen atzean izkututzen da.

JONE REN BELDURRA

Itzuli egingo naiz!

Beldurra desagertzen da.

MARINELA 5

Eta menderatuko zaitugu berriz ere. Zu bakarrik zaudelako, Beldurra. Guk lagunak ditugu. Horixe da gure indarra.

KAPITAINA

Eta orain, itxas neskamutilok, azkeneko mesedea eskatu behar dizuet. Gurekin batera ohiukatu behar duzue: “Burua eta adimena erabiliz, ikararik ez. Egun on!!Goazen.

TODOS
BURUA ETA ADIMENA ERABILIZ, IKARARIK EZ.
EGUN ON!!

Eguzki izpiek pertsianaren zirrikituetatik sartzen dira.

KAPITAINA
Eguzkia irteten ari da. Marinelak!

MARINELAK
¡¡Aupa!! / ¡¡Gora!!...

KAPITAINA
Misioa betea!! Egunsentia da. Lan bikaina, lagunok!!
Marinelok, izkuta zaitetze, Jonek ez gaitu ikusi behar. Eta
zuek ere, irten zaitetze ametsetik Jone esnatu baino lehen.
Agur, lagunok, betirarte!!

MARINELAK
Eta milesker denagatik!!

*Egungo musikarekin, marinelak eta Kapitaina badoaz hasieran irten
diren lekuetatik. Ikusleak aretorik irteten dira. Esnagailuek denek batera
jotzen hasten diren unean. Hauxe da ametsaren amaiera ... eta
ikuskitunarena.*

AD UTAKUB